

## MEMORIA: IRRATI KOMUNITARIOAREN BARNEAN EUSKARA SUSTATZEN: EUSKARAREN TXOKOA

Euskararen erabilera sustatzeko ekimen honetarako egin behar izan zen lehenengo pausua izan zen irratsaioan parte hartzeko jendea bilatzea. Hortarako, bide desberdinetatik (Instagram, twitter, ehutaula, emailak...) deialdia egin zen jendeak irratsaioan parte hartu zezan. Jendea gurekin kontaktuan jarri zen eta beraiekin egingo ziren ekintza, elkarrizketa eta podcastak adostu ziren. Asteetan zehar bilerak egin ziren eta azkenik eskaleta bat sortu zen eta irratsaioaren difusioa egin zen berriro ere bide desberdinetatik (Instagram, twitter, ehutaula, emailak...). Hona hemen difunditutako kartelak jendeak partehartzeko eta irratsaioaren berri emteko:

**WANTED**

**ANIMATU EUSKARALDIAREN ASTEAN  
AZAROAK 23AN IRRATSAIOAN  
EUSKARAREN ALDE  
PARTE HARTZERA!**

Podcast bat grabatu dezakezu,  
elkarrizketa bat egin, abesti bat abestu,  
bertso bat...

Animatzen bazara idatzi: odsirratia@gmail.com

**AZAROAK 23: Euskara Akademiaren  
BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEAN IRRATSAIOA**

10:00-10:30: AURKEZPENA  
10:30-10:45: EHU EKINTZAILITZA  
10:45-11:05: EUSKERA AKADEMIAN  
11:05-11:30: GRALAK EUSKARAZ  
11:30-11:45: JON KORTAZAR. EUSKAL  
LITERATURARI EKARPENA  
11:45-12:00: DIGITALIZAZIOA- TEKNOLOGIA ETA  
INKLUSIOA  
12:00-12:15: ITXIERA  
12.15: PODCASTAK

Azaroak 23, euskaraldiaren astean barnean, irratsaioa ospatu zen Bilboko Hezkuntza fakultatean. Ekimenak arrakasta handia izan zuen eta Hezkuntza fakultateko ikasle, irakasle, ikasle ohi, eta fakultate kanpoko beste eragileek ere parte hartu zuten. Irratsaioa ikusgai dago ODS irratiaren instagramean [https://www.instagram.com/ods\\_irratia/?igshid=YmMyMTA2M2Y=](https://www.instagram.com/ods_irratia/?igshid=YmMyMTA2M2Y=) eta argazkiak ikusgai daude twitteren [https://mobile.twitter.com/bhf\\_feb/status/1595531539764371456](https://mobile.twitter.com/bhf_feb/status/1595531539764371456) eta <https://mobile.twitter.com/ikerexeta/status/1595348871617691648>. Hona hemen ataratako hainbat argazki: (ezkerretik eskuinera: Urtza Garai dekanoa, Jon Kortazar euskal literaturagile, Itziar kerexeta ikerlari digital eta euskarazko gral ohorezko matrikula atera duten ikasleak)

